

# BALEIKE

203. ZENBAKIA. EURO BAT  
2011ko URRIA

[www.baleike.com](http://www.baleike.com)

ALEX URANGA

HAU HASIERA  
BAINO EZ DA



IHINTZA TABERNA IXTEAR, 23 URTE ONDOREN



**BATELA**  
**ARRANDEGIA**  
 Izustarri, 2-4  
 Tel. 943 860 750

*Aukera zabala bertako arrain freskoan*



**denda:**  
 Mendaro marinela, 1  
 tel.: 943 143 346  
**biltegia:**  
 Jose M<sup>a</sup> Korta Industrigunea  
 Pab. A6.1, 2-5 mod.  
 tel.: 943 861 117  
 fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako  
 era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

# BALEIKE 203

AZALA IBA / Specker



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietala eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

6

baleike +

ALEX URANGA,  
OLATUAREN  
APARREAN

18

erreportajea

IHINTZAK GORDETA  
OROITZAPENAK

29

agenda

URRIA-AZAROA

30

ipuina

USAINAK

5

bertso xorta

JOKIN GIJARRO

16

izpiak eta hizkiak

ITZURUNGO  
LABARRETA  
KOBAZULOAK

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiako Udala





**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak  
tel.: 943 14 31 22

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak  
a3zumala@terra.es

Kopiak eta materiala  
tel/Faxa: 943 14 31 20



**AIZPURUA**

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569



Astelehenerdik igandera 08:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.  
Etxera banaketa doan

Alai auzategia, 3 • 943 118 394

**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261

**ALBERDI**  
Dj July

Musika onena eskontzetan, kintoen ospakizunetan eta era guztietako festetan

600 982 810  
july\_alberdi144@hotmail.com




**ALGORRI**TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157 anaetxeokozapiak@telefonica.net

ILEA PAINDEGIA

*D'Ana*

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 408



**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Erakusketa. Hego kalea, 4-5  
Denda. Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

www.argisun.com  
info@argisun.com

OKINDEGIA  
Arrikupe

Nagusia, 2 - tel. 943 561 501  
ZUMAIA

OGI-EDER



**ARRUTI**  
Baltasar Etxabe 2/9  
Zumaia 943016429



**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Itelak, frantses, euskara, ingeles, espainier, katalanier, basque, basque, catala, frantses, frantses, anglas, katalan, frantses, katalanier, frantses, frantses, ingeles, basque, katalan

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25  
20749 Arroa tel./faxa 943 148 306  
bakun@euskalnet.net



**Basadi albaitaritza**

Ribaitario  
Itakl Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310  
www.basadiarbitza.com  
www.basadiarbitza.com

Golez: 11-13 / Arrabaldok: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean bita  
Lamiakelasko: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzua

**BASUSTA**  
ERRETEGIA



Patutia Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073

**BATELA**



**ARRANDEGIA**

Izustarri, 2-4 tel. 943 860 750

# Eskerrik asko!

Doinua: "Agur sagar beltzaran"



**1.**  
**E**skerrak emateko  
hartuz pazientzia  
orain artean nuen  
barruan utzia  
lasai laga nahi nuke  
nire kontzientzia  
nahiz denentzat ez izan  
badu garrantzia  
hitzez esan gabea  
bertsoz idatzia.

**2.**  
**L**anerako gogoaz  
hona Ortzaikatik  
lana eragitera  
arraun egitetik  
probatua zera zu  
on eta txarretik  
gizon paregabea  
kanpo ta barrutik  
mila esker Luxia  
bihotz-bihotzetik.

**3.**  
**N**ola eskertu hura  
han bizi izana  
Unai anai leiala  
Agurtzane dama  
nahiz urtebete pasa  
ez da iragana  
ezin hobeto irten  
ezkontzeko plana  
ez zait inoiz ahaztuko  
egun hark emana.

**4.**  
**A**zarotik iraila  
kasik da urtia  
zenbat sufritzen dezun  
ai nire maitia  
gutxi izan ohi degu  
biontzat astia  
zure bihotzak badu  
niretzat tokia  
bertso batez ezin da  
eskertu guztia.

**5.**  
**E**makumeak bikain  
gizonena ona  
Kontxako igandek  
izan duten sona  
guztia Baleikeko  
orrian dagona  
argi dago ez dela  
txantxa edo broma  
Baleikek arraunari  
ematen diona.



ANDER HORMAZURI



# OLATUAREN APARREAN

BALEIKE +

Duela bi urte elkarrizketatu genuen lehen aldiz Alex Uranga aldizkari honetan. Kasta bereziko mutila, obsesio bakarra zuen buruan: kortxoa hartu eta surfean egitea. "Goizean jaiki eta komunean nagoela, bertako leihotik ikusten dut Parolean olatuek nola jotzen duten. Horrela badakit zer olatu mota izango diren egunero". Eta amets handi baten berri eman zigun: "Gutxienez urtebetez bodyboardean buru-belarri aritu nahiko nuke".

Amets hori gauzatzeko gogor egin behar izan du lan; bodyboardak gurean ez du Australian edo Brasilen duen oihartzuna. Baina, pixkanaka bere bidea egin du, amore sekula eman gabe. Aurkariak neurtu ditu buruz-buru lehiatzeko aukera izan duen bakoitzean, eta ohartu da ez dela haiek baino gutxiago. Aurten denboraldia ez zihoan nahi bezain ondo, baina irailean dena aldatu zen Galizian. Eta gero Reunion Uhartekoa... Ate handienetik sartu du "kortxero"-en olinpoan. Urtebetez bakarrik ez, urte askoan izan dezala bodyboardean buru-belarri aritzeko aukera. Denok gozatuko dugu.

# “URTE BATZUK EGIN NAHIKO NITUZKE ONENEN ARTEAN”

Ahoa bete hortz utzi ditu munduko bodyboardzaleak Reunion Uhartearen lortu duen garaipen handiarekin. Liluratuta txapelketa bertatik bertara jarraitu dutenak bere izaera umil, alai eta menderaezinarekin. Ez da gutxiagorako, epikarako osagai guztiak baititu bere istorioak.

TESTUA: GORKA ZABALETA

“Aupa Manu!” egin du oihu San Pierreko podiumean saria jaso duenean. Anaiak sartu zion kortxoaren harra, hark ireki zion bidea, erakutsi zizkion leku egokiak eta teknika, eta beti izan du alboan. Baita Reunion Uhartearen ere. Oiloipurdia jarri zaigu bien arteko besarkada ikusi dugunean ordenagailuaren pantailan. Txapela buruan, ikurrina bizkarrean eta elastiko horiarekin, Tourreko irabazlea dirudi... Telebistako kazetariari erantzun dio, eztarrian korapiloa eta burua lehertzeko zorian duela: “*I feel*, oso... sentitzen naiz... ezin da hitzez deskribatu, bizi egin behar da. Lan egin behar da, sinestezina izan da, urratsez urrats... Anaia beti alboan izan dut, lagunak ere beti laguntzen... Mundu guztia. Sinestezina izan da. Espero dut beste batzuek ere izango dutela aukera... Liluratuta nago... Gora Euskadi! Bodyboarda oso gora eraman behar dugu, kirol bikaina da, zutikako surfa baino hobea, benetan ona. Egin beharra daukagu. Aurrera!”.

## Ametsa

**Duela bi urte, Baleikeko erreportaje hartan, zenioen zure ametsa zela urte oso bat bodyboardari dedikatzeko aukera izatea. Lortu duzu: datorren urtean munduko 24 onenen arteko txapelketan izango zara.**

Hala espero dut. Bai, gogoratzen dut erreportajea. “Itzurungo izurdea” zen azaleko titularra. Reunion Uhartearen lortutako garaipenak bultzada handia emango didala espero dut. Ea norbaitek nigan konfiantza erakutsi eta nire aldeko apustua egiten duen. Behin gora iritsita, urte batzuk egin nahiko nituzke onenen artean. Ez da erraz konformatu behar! Bakoitzak berearen bila joan behar du!

**Munduko Bodyboard Zirkuitu osoa egiteko diru asko behar da. Bidaia garestiak dira, munduko mutur batetik bestera ibili beharra dago. Baina Reunion Uhartearen egin duzun erakustaldiarekin ez zenuke arazorik izan behar...**

Zirkuitu osoa egin ahal izateko gutxienez 25.000 dolar behar dira. Hori bidaiak, egonaldiak eta izen-emateak ordaintzeko bakarrik. Laguntzak espero ditut! Ea zer iristen den... Orain arte gurasoen eta Hoff babeslearen laguntzak izan ditut.

Gainera, lehen urteak zailak izaten dira, izena lortzen duzun arte. Uste dut kirolariek Euskal Herrian bultzada handiagoa behar dutela.

## Zailtasunez betetako bidea

**Hilabetearen gauzak nola aldatu diren, Alex. Irail arte denboraldia ez zihoan batere ondo...**

Munduko Zirkuitua Hawaiiin hasi nuen. Iaz munduko 32. postuan amaitu nuen, baina ez zidaten sailkapena errespetatu eta txapelketa lehen kanporaketatik hasiarazi zidaten. Hori gutxi ez eta sekulako hanka sartzea egin zuten. Lehiatzen ari ginela, txandako lehen postuan nintzela esan eta esan aritu ziren –laukotea lehian–. Nire iritziz ere saio oso ona egin nuen. Uretatik irten ginenean, denon ezusterako, hirugarren postuan nengoela esan zidaten, eta kanporatuta nengoela. Halaxe amaitu zen lehen proba. Etxera bueltatu, hemengo olatuetan entrenatu, eta kiroldegira lan egitera...

**Mexikoko probara arte, ordenagailutik jarraitu behar izan zenituen Hego Amerika eta Australiako probak.**

Bai, uda partera arte etxean gelditu nintzen. Mexikoko probaren aldeko apustua egin nuen, Zikatelako olatu indartsuan jokatu nahi nituen nire aukerak. Mexikoko trialsetan –sailkapeneko faseetan– saio politak egin nituen, baina agian puntuaketa batzuk ez ziren oso bidezkoak izan. Txapelketa nagusia jokatzeke atarian gelditu nintzen.

**Denboraldia aurrera, eta emaitza aipagarririk gabe.**

Hilabete egin nuen etxean, eta oso entrenamendu ona izan zen Europako probetarako. Oso olatu indartsuak eta onak surfeatu nituen eta gainera lagunartean. Sasoa hartzeko, lekuri onena! Sintran (Portugal) ez nuen batere zorterik izan, baldintzak oso eskasak ziren eta esango nuke nik neuk kanporatu nuela neure burua. Ez nintzen fin ibili.





## ◀ GOGOBETETA

*“Oso gustura” dago Alex, “egindako lanaren emaitza” delako Reunion Uhartean lortutako garaipen handia.*

**BEDUA**  
**ITURGINTZA S.L**  
 ANTONIO AZPILLAGA



**-KALEFAKZIOA**  
**-ZORU BERO-EMAILEA**  
**-GAS INSTALAZIOA**  
**-GAS NATURALA**  
**-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK**

Jose Mari Korta Industrigunea, 9  
 20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
 tel. 943 143 369



**Braky's**  
 Okindegia Kafetegia

Izaga kalea, 2  
 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 57 07 79  
 Móvil: 649 967 289

**EGOKI**



*Erloju eta bitxi denda*

E. Gurrutxaga plaza, 6  
 tel. 943 861 787



**EKAIN**  
 SAGARDO EKOLOORDA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943 143 097  
 ekinsi@ekinsl.com www.ekinsl.com

**Instalazio elektrikoak**  
**Telekomunikazioak**  
**Informatika**  
**Internet**





Erribera, 8 tel. 943 861 694



**ERNIO TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045



**ERROTA**  
**OPIL-OKINDEGIA**  
**SANTILLO AUZOAN, 32**  
**20750 ZUMAIA**  
**TEL: 943860000**  
**943860612**  
**FAX: 943860977**  
 errota@errota-okindegia.com

**ERTZ INFORMATIKA**

Portatilak konpontzeko zerbitzu berria



Eskatu sarekontua konpromisorik gabe.  
**DOAN**

Behoko plaza tel./faxa: 943 143 395

**FARMA ZUMAIA**  
 Parafarmazia • Belar-denda  
 Tel. 943 865 323

**PRODUKTUAK**

- Ume eta haurrentzat, deietakoak, kosmetikakoak, harika eta eskuen zaintzarako...

**ZERBITZU BEREZIAK**

- Dietada, Naturapafia, Hidrologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutas), Kiroteriazako, Laxatiboak, Estresaren, Artrosklosaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoan... kontrakoak), Akupuntura: honatzean eta horratzean gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA

**Galdona**



**burdindegia**

Mandaro marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
 Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330



**GAZTE, S.L.**  
 ELEKTRIZITATEA

*Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan*

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617

**GANBARA**

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



**Garoa**  
 kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181



**GOIKO TABERNA**

Erribera, 9 tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

**Golden Gate**  
 Institute  
 hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, behea  
 tel./faxa 943 865 020  
 goldengateinsti@telefonica.net

# “Inork ez du halakorik lortu”



Andoni Izaga, Mikel Fuentes, Unai Uranga, Xabi Urrestillak ordenagailuari lotuta pasa dituzte txapelketako egunak. Lagunak egin duenarekin zoratzen daude. “Ikaragarria izan da. Inork ez du lortu Alexek egin duena: trialsetatik iritsi eta maila nagusiko txapelketa irabaztea”.

“Ni neumoniarekin egon naiz, eta horri esker txapelketa osoa jarraitu ahal izan dut ordenagailutik goizetik gauera –irudiak zuzenean jarraitze-ko aukera eman dute txapelketako webgunean–”, dio Mikel Fuentesek. Andonik, Unai eta Alexek ere tarte guztiak aprobetxatu dituzte. “Niri esan zidatenean trialsak irabazi zituela, ez nuen sinetsi”, dio Andoni Izagak. “Nola irabaziko zituen, besoa txikituta zuen eta? Etxera joan eta bideoak ikusi nituenean, harrituta utzi ninduen. Oso ondo surfeatzen ikusi nuen, motibazio handiarekin, txandak oso ondo gainditzen. Sekulako aldearekin ari zen irabazten!”.

Reunion Uhartera joan baino hamar egun lehenago Itzurunen izan zuen istripua bertatik bertara ikusi zuten. “Itsasbehera zen, eta San Telmo aldeko brankadaren ondoan olatu handia hartu zuen: furgoneta bat sartzeko moduko tuboa! Tubo luze-luzea egin zuen, baina amaieran olatua itxi egin zitzaion, harrapatu egin zuen, eta hondarraren kontra kolpe handia hartu zuen. Minez kexu zen, baina surfean jarraitu zuen. Uretatik irten zenean, sorbaldako mina zuela zioen, baina aparteko kezkarik gabe. Gauean seku-

lako minez esnatu, eta larrialdietara joan zen. Lepautaita aterata zeukan. Medikuak esan zion 10-15 egunetan ezer ez egiteko. Lesio horrekin, eta gainera marrazoen kezkarrekin, ez joatekotan egon zen. Baina begira azkenean zer egin duen...”.

Denak ados daude erakutsi duen lasaitasuna erabakigarria izan dela. “Beste batzuetan olatu guztien bila aritu izan da, gehiegizko tentsioarekin. Reunionen lasai zegoen, oso konzentratu, olatuak ondo aukeratzen eta maniobra guztiak amaitzen. Txapelketa honetan hiruzpalau olatu hartu ditu saio bakoitzeko, ez gehiago. Hori izaten da zailena”.

Alexen meritua goraiatzeko dute lagunak: “Beretzat zailagoa da dena. Top24koek aukera dute zirkuituko proba denak egiteko, eta saio nagusian hasten dira lehiatzen, ez dituzte lehen kanporaketak gainditu behar. Alexek oso ondo aukeratu behar du nora joan, oso garestia delako. Eta gainera, atzeragotik hasi behar ditu txapelketak. Reunion Uhartean, gainera, sekulako maila egin da. Oraindik Mun-

duko Zirkuitua nork irabaziko duen erabakitzeke dago, eta munduko onenak ere dena ematera joan dira”.

Kirolari bezala, sekulako dohainak omen ditu: “Teknikoki egoera guztietan ondo moldatzen da, eta fisikoki ikaragarriko gaitasuna dauka. Urte batzuk daramatza maila gorenera ailegatu nahian, top24an sartzeko zorian ere izan zen iaz, baina puntu gutxi batzurenatik ez da sartu orain arte. Reunionen erakutsi du zer maila daukan eta azkenean goian izango da hurrengo urtean”. Pertsona definitzerakoan, berriz, “kastakoa” dela diote, “ona, umila”.

Xabi Urrestilla, Alex Odriozola eta Unai Uranga gazteentzat erreferentzia da Alex. “Ikusten duzu Itzurunen zurekin uretara sartzeko den horrek zer lortu duen, nolako maila erakutsi duen, eta horrek gogoia ematen dizu jarraitzeko eta borrokatzeko. Bodyboardak ez du oihartzun handirik eta lorpen honek asko lagunduko digu”.

Azkenik, kirol mailako lorpenak segida izan dezan, denek azpimarratzen dute laguntza beharko duela hurrengo urtean Top24an lehiatzeko. “Bidaia asko eta oso garestiak dira. Orain Hawaii, hurrengoan Puerto Rico... Munduko punta batetik bestera ibili behar da, eta horretarako dirua behar da. Garaipen handi honekin babesleak lortzeko aukera izango du, baina guztion laguntza beharko du”.





IBA / SPECKER



IBA / SPECKER

## ► TXAPELKETAKO IZARRA

Alex izan da txapelketako protagonista nagusia, egin duen surf harrigarriagatik, eta zailtasunen aurrean erakutsi duen kemenagatik.



IBA / SPECKER



IBA / SPECKER



IBA / SPECKER



IBA / SPECKER



**Baina irailan, Galizian, argia ikusi zenuen azkenean. Han hasi zen dena aldatzen.**

Bai, hala da. Sintratik zuzenean Ferrolgo probara joan nintzen, lasai, presiorik gabe. Helburua urruti eta zail ikusten nuen, baina zer egiteko gai naizena erakusteko gogotsu nengo. Pixkanaka-pixkanaka, txandaz-txanda, erabat konzentratu eta nire onena eman nahian. Konturatzera, finalurrekoetan nintzen. Lehia gogorra eduki nuen Jons Russell australiarrekin, baina 9 puntuko olatu baten premian utzi nuen eta neuk egin nuen aurrera. Finala Yerai Martinez kanariararen aurka izan zen. Lehen 18 minutuetan olatu bakarria hartu nuen, baina puntuazio altukoa. Lasai, une egokiaren zain, azken minutuan nik neukan lehentasuna olatu hartzeko, aurkariaren aurretik. Olatua hartu eta boom! ARS (Air Roll Spin) maniobra bat egin eta urertzera olatua ondo lotuz 8,5eko puntuazioa lortu nuen. Azken segundoa garaile! Latza! Bidean nintzen berriz, eta egin nezakeela sinetsita.

**Galiziako sariari esker, Reunion Uhartera joateko aukera izan zenuen. Baina bidaia bertan behera utzi behar izan zenuen...**

Hasiera batean, kezka baguenen, marrazoen eraso asko izan direlako aurtenguru hartan –bost lagun hil dira–. Eta gero lesioarena gertatu zen. Txapelketa hasi baino hamar egun lehenago, Itzurunen kolpe handia hartu nuen. Lepauztaia ateratu nuen eta medikuak atsedena hartu behar zuela esan zidan. Bidaia uztekoan egon nintzen, bai.

**Reunion Uhartea**

**Baina Reunion Uhartera joatea erabaki zenuen. Beso lotuta zenuela ekin zion lehiari. Eta ekin bakarrik ez, trialsak irabazi zenituen. Hori izan zen lehen lorpen handia: 2012rako top24rako txartela. Eta fase nagusia hasi, eta beste muturreko bat...**

Bai, sekulakoa gainera. Hondo haitzezkoa da, koralez beteta dago, eta aurpegian sekulako kolpea hartu nuen. Baina asko okerrago izan zitekeen. Egia da zauriak ikusgarriak zirela, baina azalekoak. Besteralde, hau da bodyboarda, muturreko kirol bat da, bere arriskuekin.

**Pixkanaka txapelketako protagonista nagusia bilakatu zinen. Telebistako kazetariak liluratuta zenituen zure kemenarekin. Basque Country-ko “no pain boy” (minik ez duen mutila) omen zinen.**

*No pain?* Bai zera! Etxera iristen ginenean koadroa ikusi behar: aurpegia erabat zuri, zauriak sendatzeko ematen nuen kremarekin; sorbaldan izotza jarrita, eta hankei atsedena ematen. Besoan mina nuenez, hankekin egin behar izaten nuen indar guztia olatuan aurrera egiteko. Haitza jo ondorengo lehen olatuetan, nahikoa beldur sentitu nuen, oso sakonera

txikia zegoelako urertzean. Txapelketarako agian ona izan da, jendearen jakinmina piztu du. Batzuk gerturatu zitzaizkidan, soilik aurpegiko zauriak ikusi nahian... Baina uste dut, hala ere, onena nire surfa izan dela, kolpea alde batera utzita, horrek eman dio atentzioa jendeari.

**Besteak beste, Munduko Zirkuitua irabazteko lehia dagoen Gilherme Tamega brasildarra kanporatu eta gero, bi atsedena egun, eta urriaren 7an txapelketako azken eguna. Final-laurdenetan Michael Novy australiarra izan zenuen aurkari.**

Eta huraxe izan zen eguneko saiorik zailena, bi eguneko atsedenera ondoren urduritasuna sentitzen delako berriro lehia hastean.

Baina bederatzi puntuko tubo bat lortu nuen eta hor botu nituen urduritasun guztiak. Uste dut olatu horri esker irabazi nuela, Novy oso ondo ibili baitzen.

**Finalurrekoan Dave Winchester, beste australiar bat. Hau ere izen handikoa.**

Aurreko kanporaketan sekulako maila eman zuten etxeko baten kontra, eta bero-bero sartu zen finalurrekora, gogotsu. Puntuaketa oso parean joan zen saio osoan, baina azkenean olatu onenak aukeratzeko asmatu nuen eta zortzi puntutik gorako maniobra egin nuen, tubo batekin eta “inbertida” batekin. Ederra.

**Eta finalean Jake Stone, hau ere australiarra. Hiru minuturen faltan puntuazio on bat behar zenuen, eta, haizearen eraginez, itsasoaren baldintzak ez ziren onenak.**

Ez nekien oso ondo zenbat puntu behar nituen, baina bai atzetik nintzela eta olatu on bat behar nuela. Haizea zakartu egin zen eta horrek olatua sakabanatu zuen. Gainera, Stonek zuen lehentasuna. Erabaki nuen atzerago gelditzea, seriearen bila aurreraino joan gabe. Olatu bat etorri zitzaidan eta bukatzeko aukera izan nuen. Puntuaketa entzun eta esan zutenean aurretik nintzela, dena burura etorri zitzaidan. Amorruguztia askatu nuen. “Irabazi egin diat!” esaten nion neuri buruari, oraindik sinetsi ezinik. Pasa nituenak pasata... Reunion Uhar-tean esaten duten bezala, karma ona eduki dut.

**Garaipen hau mugarri bat da zure ibilbidean.**

Hau hasiera baino ez da. Beste bazuek ere egin dezakete eta pixkanaka gora egingo dugu. Lana egin behar da, konfiantza izan eta asko surfeatu urte guztian zehar! Badira Zumaian maila handiko gazteak eta denek merezi dute aukera bat.

Garaipena “lagunekin eta zumaiarrekin” ospatzeko gogoia bai, baina Reunion Uhar-tean bere paradisu pertsonala aurkitu du Alexek, eta astebeteko oporraldia aprobetxatu du anaia Manurekin hango bazterrak hobeto ezagutzeko. Gero, behin etxean, komuneko leihotik begiratuko du egunero, olatuek Parolaldean nola jotzen duten ikusteko. ■



**Gure-Txokoa**  
taberna

Upela plaza, 4  
20750 Zumaiak  
Tel.: 943 86 09 70

English School  
**Harvest**

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API  
**Ibaitain**  
inmobiliaria

Ricardo Azkue  
API 399

Txomin Agirre 4, beheak  
tel. 943 862 651  
faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

**Idoia**  
Moda denak  
Andergaitetan espezializatutarik

Julio Beobide, 2 beheak Tel. 943 86 03 01  
idoiazumaiak@gmail.com

**Shinta**  
ZUMAI

**ilarzi**

Alai auzategia, 2  
Tel. 943 24 50 20

**INPERNUPE**  
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

**IRUITZ**

Ileapaindegi Mistoak

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAJA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 860 760

**ITSASKI**  
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

**JUARISTI**  
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

**Itzurun, S.L.**  
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotatuak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 beheak  
Tel. / Fax: 943 86 15 65

**ORRAZTEGI**  
ZUMAI

943 862 083

**KABI** Patata Etxezarreta, 15  
943 117 427

TABERNA

**Kaithermik S.L.**

**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZH-trekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

**kalari**

Upela plaza, 8  
tel. 943 862 517

**KANTAURI**  
TABERNA

Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatuak

Kantauri plaza, 4 beheak • Tel. 943 575 840

**Kresala**  
Taberna

Julio Beobide 3, tel. 943 019 869

**bigarren eskuko liburu eta disko**

Urriaren

22an eta 23an

# azoka

**lazko etenaldiaren ondoren, Baleike Kultur Elkarteak bigarren eskuko kultur produktuen azoka antolatuko du urrian.**

**Azoka aurrera atera dadin, ezinbestekoa da guztion parte hartzea. Etxean hamaika liburu, disko, dvd, komiki eta beste izaten ditugu hautsa jaten, eta azoka aukera polita da apaletan leku pixka bat egiteko. Hori bai, kontuan izan beste norbaitek erosteko modukoa behar duela izan. Horregatik, egoera onean daudenak bakarrik onartuko ditugu. Materialarekin lagundu nahi baduzu, Alondegian utz dezakezu, urriaren 19ra arte.**

**Aurreko aldietan azokan bildutako dirua nazioarteko lankidetzara bideratu da, baina aurtengoa baleike.com webgunea garai berrietara egokitzeko erabiliko da. Aurrerantzean ere, herriko kultur ekimenak bultzatzeko izango da.**

# parte hartu!



argazkia eta testua Gorka Zabaleta



# Itzurungo labarretako kobazuloak

Irail amaierako marea biziak aprobetxatuta, Itzurungo kobazuloetako batean sartu nintzen, gazte koadrila batekin. Ilunpean geundenez, eta tripodetik ez nuenez, kamera haitzean nola edo hala finkatuta atera nituen zenbait argazki, koadroan zer aterako zen gehiegi kontrolatu gabe. Horrez gain, argi eta itzalen arteko kontraste ikaragarriak asko zailtzen ditu lanak.

Garrantzitsua da horrelakoetan argazkia raw formatuan egitea. Lehengo negatiboen bertsio digitala da. Esate baterako, eskuinaldeko haitz lerro horiek ez ziren apenas ikusten argazkiak ordenagailura deskargatzerakoan. Baina, argazkiak editatzeko programa bati esker –kasu honetan, Lightroom–, ezkutuan dagoen informazio azalera daiteke. Eta horra hor emaitza.

Atera nuen sortatik hauxe gustatu zitzaidan gehien, argi-itzalengatik eta konposizioagatik, haitzak egiten duen kiribilagatik. Olatuaren itxura hartzen diot nik. Gurekin sartu zen gazteetako bati balearen hezurdura iruditu zitzaion; karakola baten forma hartu dionik ere bada... Horrez gain, juxtu argi unean ikusten den gaztearen irudiak asko aberasten du argazkia, neurria ematen diolako kobazuloari.

# IHINTZAK GORDETAKO ORROITZAPENAK



Urriaren 29a 30a bihurtuta izango da ordurako eta goizeko lehen argiek hartuko dute gau beltzaren lekukoa. Disko jogailuko orratzak azken doinuak aterako dizkio binilozko disko beltzari eta baxuen taupadak bozgorailuetatik atera eta berehala hilko dira. Derrepentean, isiltasuna. Istant gutxi batzuetan bada ere. Ez dira faltako gautxorien azken oihuak: "Beste bat, beste bat!". Ez da kanta gehiagorik izango; ezta azken tragorik ere. Ez azken 23 urteetan ezagutu dugun tabernan. Sinestea zaila egiten bazaigu ere, Ihintzarik ez da izango hemendik aurrera. Ez ezagutu dugun Ihintzarik, behintzat.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Taberna fumigatu berria dagoelako, Marina kafetegian jarri dugu hitzordua. Heltzerako Klaudio atean dago zain, zigarroa eskuan duela. Salda geroxeago heldu da, bizikletan. Ebaki banarekin mahai inguruan eseri eta hitz egiteari ekiten diogu. Ihintzaren historiaz, musikaren garrantziaz eta gaueko giroak azken urteetan izan duen bilakaeraz luze egin dugu hitz.

Elgoibarren jaioa eta urte askoan ostalaritzan ibilia, Klaudio Monrealek taberna edo jatetxe bat hartzeko gogoia zuen. Hondarribiko jatetxe batzuk ikuskatu zituen, baina ez zuen ezer interesgarriarik aurkitu. 1988. urtean jakin zuen Zumaian taberna bat transferitzeko zegoela. Bere neskalagun Atseginekin hitz egin, eta Ihintza izena zuen taberna hura alokatzea erabaki zuen. "Aurretik behin bakarrik izan nintzen Zumaian eta esan daiteke une hartan noraezean genbiltzala. Tabernaren izena mantentzea erabaki genuen. Izena ez zitzaidan asko axola. Ez nekiena zen zer nolako taberna jarriko nuen".

Obra txikia egin eta gero, 1989ko urtarrilaren 5ean zabaldu zuen taberna berriua. Lehen hilabete hartan Jesus izeneko lagun bat izan zuen lankide. "Elgoibarko Malape tabernan egiten zuen lan, eta Salda etorri zen arte, Ihintzan laguntzen izan nuen".

Salda. Ricardo Zengotita. Elgoibartarra hau ere eta Klaudioarekin batera, Ihintza tabernaren historiako protagonista. "Urte hartako urtarrilaren amaieran Elgoibarko taberna batean lan egiteari utzi nion eta asteburua pasatzera etorri nintzen Zumaia. Tabernan aspertuta nengoen batean, barraren beste aldera pasa nintzen musika pixka bat jartzera. Eta beno, orain arte".

Orduko giroa gaur egungoarekin ezin dela parekatu dio Klaudio: "Sekulako mugimendua zegoen. Gaur egungoaren hirukoitza, gutxienez. Zoramena zen. Edozein asteburutan goizeko 06:30ak arte irekitzen genuen eta astegunetan goizaldeko 03:00ak ere jotzen zizkiguten". "Gazteagoak eta alproja xamarrek ere baginen", gaineratu du Saldak.

Hasiera hartatik gaur egunera arte, Zumaia kultur giroaren bilgune izan da Ihintza. Kontzertuak, erakusketak, aurkezpenak edota irakurketak entzun, ikusi edota gozatu ahal izan dira. Klaudio garbi zuen hasieratik kulturari tartea egingo zitzaiola tabernan. "Margotzeko zaletasuna izan dut beti. Atsegini esan nion tabernan erakusketa batzuk muntatuko genituela, aukera izanez gero. Lehen urteetan oso ondo funtzionatu zuten eta 15 bat erakusketa izan ziren".

1999an Ihintza bera bihurtu zen artelana. "Taberna berritzeko asmoa genuen eta egoki ikusi nuen herriko artisten kolaborazioa eskatzea. Keixeta, Ander Hormazuri eta Aran Santamariarekin hitz egin nuen eta hirurek poz-pez hartu zuten parte. Une hartan erakusketen gaia moztu zen, baina haren ordezkari komunitateko txoko hori sortu genuen". 2000. urteko hasieratik 2003ko amaierara hilero erakusketak egin ziren Ihintzako komunean. Artelan haiek *Ihintza 2000-2003. Arte komunista* liburuxkan bildu zituen Aran Santamariak 2009ko azaroan.

"Erakusketa bat edozein tabernatan munta zitekeen, baina zentzu handiago zuen gurea bezalako taberna batean, halako kultur motibazioa zuelako. Gure tabernak ez zuen telebistatik; ez eta pintxorik. Eta besteengatik desberdintzeko



▲ MUSIKAREN  
GARRANTZIA

*Klaudiok rock klasikoa eta jazz  
ditu gogoko; Saldak musika  
beltza eta dantzarakoa.*

kulturaren aldeko apustua egin genuen. Liburutegi bat ere jarri genuen denbora batean, baina frakaso hutsa izan zen. Funtzionatu zuen liburu bakarra *Marihuana nola landatu* izan zen. Kulturaren aldeko apustu horrengatik beti izan gara kritikatuak, baina baita zorionduak ere”, azaldu du Saldak.

Arteak berebiziko garrantzia izan badu ere, musikarekiko izan duen errespetua da Ihintza beste tabernetatik bereizi duena. Rolling Stones eta James Brown. Lee ‘Scratch’ Perry eta Massive Attack. Sentsazioetan barrena bidaia amaigabea eskaini du. Kingstoneko Studio One-etik Detroiteko aldirietara. Bristolgo auzo txiroetatik Parisko Saint-Germain-des-préseko kaleetara. Saldaren ustetan, “taberna honen indarra hor egon da urte askotan. Klaudiok rock klasikoa eta jazza maite du; nik musika beltza eta dantzakoa.

Hasiera batean pop musika asko jartzen nuen. Oso gaztea nintzen eta musika beltza ez nuen asko ezagutzen. Gero, ezagututako jendeari eta irratian lan egiteari esker (Egin irratiko *Igo bolumena* saioan *Cannabis baratza* izeneko txokoa zuen, reggae musika jartzeko) joan nintzen musika hura ezagutzen. Elektronika aldera ere jo izan dugu. Pop eta rock musika beste leku batzuetan entzutea errazagoa da... Beno, Zumaian ez hainbeste. Baina ezin zara denera heldu”.

Euskal Herriko, Espainiako eta nazioarteko taldeen kontzertuak izan dira taberna honetan. “AGE anaien kontzertua izango zen lehena”. One drop taldeak ere jo zuen bertan. Gutxira, Undrop izena hartu zuen eta sekulako arrakasta lortu zuen *Train* kantarekin. Kanta hori Coca Colaren iragarki batean ere agertu zen. “Hemen soul, jazz, rock, blues, mu-





“Kulturaren aldeko apostuagatik kritikatuak izan gara, baina baita zorionduak ere”



### ▲ ELGOIBARTARRAK ZUMAIAN

Taberna hartu baino lehen, behin bakarrik izan zen Claudio Zumaian. Saldasteburu bat pasatzera etorri zen. 23 urtez egon dira herrian.

sika brasildarreko edota flamenkoko kontzertuak izan dira. Bestalde, disc-jockeyen saioetan denetik izan dugu: Aritz Sound System, Morau, Makala *Hondartzak* diskoa aurkezten, Luis Beltza... Etxeko jendea ere hemen hasi da DJ lanetan, Esther edota Ivan Llavori, adibidez”, du gogoan Saldak.

Igoera baten ondoren beti beherakada izaten dela diote. Azken beherakada, baina, larria izan da. 23 urte hauetan une goren asko eta beherakada ugari egon direla diote biek, “batzuetan bizi izan dugun egoera pertsonalak hala behartuta”. Lehen urteak oso onak bezala gogoratzen dituzte; baita 1999ko obraren ondorengoak ere. Krisiak, baina, ez du errukirik izan eta azken urte eta erdian zorrak gehitzen joan direla onartu beharrean daude. “Egoera txarra zelako lokalaren jabeari alokairua jaisteko eskatu genion, baina hura temati mantendu zen berean. Urte eta erdi gindoazen zorrrak pilatzen eta horrela ezin genuen jarraitu. Guretzat ezin badugu lanik egin, ez dugu besteentzat egingo”, azaldu du Klaudio.

### Baina orain ez denbora asko taberna nahiko bete ikusten zen....

Klaudio: Bai, baina ez pentsa, soldata bakarerrako ematen zuen. Gastuak oso handiak dira.

Salda: Pasa den urtea arte egun potenteak egon ziren. Bezero kopurua jaistea ez da Ihintzaren arazoa bakarrik; orokorra da. Gaua hiltzen ari da. Garaiaren arabera fase desberdinak daude. Batzuetan apenas egiten duzun lanik, baina beste batzuetan errekuperatu egiten zara. Belaunaldi aldaketa ere badago... Dena, dena.

Klaudio: Egoera hobetzen ikusteko hiru urte zain egoten bazara, hondoa joko duzu.

Belaunaldi aldaketa egon dela dio Saldak. Horren aurrean, bezero berriak (gazteak) hurreratzeko zerbait egin duten galdetzean, sutu egiten da. Luze hitz egin du. Garbi dago gaiari mila eta bat buelta emana dela. “Ez da gauza belaunaldi berriak erakartzeko gai izan garen edo ez. Ez dugu guk joan behar bezero berrien bila. Adinaren distantzia ere hor dago. Zerbitzari gazte batzuk izanda, errazagoa izango litzateke jende gaztea erakartzea. Baina ez ditugu. Musika gaia ere hor dago. Ihintzako musika beste tabernetan, irratan edo telebistan entzuten dena baino serioagoa da. 80eko hamarkadatik hona egoera asko aldatu da. Lehen jendea musika entzutera joaten zen tabernetara, eta musika patxangeroa 40 edo 50 urteko jendearentzat zen. Orain gazteek, ikasteko adinean daudenek, eskatzen dute patxanga. Beldurgarria iruditzen zait. Ulertzen ez dudana moda bat da. Zergatik jan txerrikeria bat, horren orde goxoki eder bat jatea duzunean”.

Abaila hartu du eta ezinezkoa da moztea. “Jakina da musika estilo bat aukeratzeko duzunean jende bat sartuko dela, eta beste batzuk kanpoan geratuko direla. Baina estilo bat aukeratu beharra dago. Estiloa diot, eta ez pertsonalitatea. Dagoeneko ez dago pertsonalitatedun tabernarik. Taberna sartzen diren gazteak harriztatuta geratzen dira telebistatik edo ordenagailurik ez dugulako. Zertarako Spotify? Musika demokratizatzeke? Zer da musika demokratizatzea? Cha-



**kuttun**  
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



**malaur**

**MAITE**  
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



**Maluta**  
jatexea • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



ileapaindegia  
estetika

solarium

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 [lasonet.com/maxi](http://lasonet.com/maxi)



**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569

- ✓ Eguneko menua.
- ✓ Asteburuetan txotx, sagardotegiko giroan.



Muniosoro, 54  
OIKIA

tel.: 943147891

**muniosoro**  
Taberna - Jatexea

**Nikol Enea**



TABERNA

Amaiako plaza



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 537 901

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3. blokea tel. 943 861 691



**NOIA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaia  
Tel.: 943 861 363  
[zumaia@carroceriasnoia.com](mailto:zumaia@carroceriasnoia.com)

Itziar industrigunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
[noia@carroceriasnoia.com](mailto:noia@carroceriasnoia.com)

636 887 812 (Zumaia)  
609 834 438 (Itziar-Deba)

[www.carroceriasnoia.com](http://www.carroceriasnoia.com)



ETXEGINTZA  
**OLIDEN**  
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



**OSKARBI**  
KIROLAK

Aial Auzategia, 14 • Arranitz, 1 Tel. 943 143 112  
[oskarbikirolak@euskalnet.net](mailto:oskarbikirolak@euskalnet.net)

yanne, Shakira edo Pogues eskatzea? Badaude horretarako beste tabernak. Zergatik izan behar dute taberna guztiak berdinak? Zergatik ezin du taberna batek desberdina izan, jende desberdinarekin eta musika desberdinarekin? Argi dago globalizazioak zerrikeria hau ekarri duela: telebistarik, futbolik edo txanpon makinarik ez baduzu, zure garaitik oso kanpora zaude”.

Ironikoa bada ere, hori esan eta txanpon makinako diru kopurua biltzera datorren gaztea sekulako zalaparta ateratzen hasi da txanponekin. Hitzak ezin dira entzun eta kanpora goaz. Saldak eta Klaudiok zigarro bana piztu dute. Aukera ezin hobea tabakoaren aurkako legearen inguruan galdetzeko.

### Lege horrek kalte handia egin al dizue?

Salda: Azken aizkorakada izan da. Tabernen une okerrenean, lege okerrean atera dute. Arazoa kalera atera dute orain.



Klaudio: Ez dut uste onurarik sortuko duenik. Ziur orain bizilagunak gehiago kezatuko direla.

Salda: Galera asko ekarriko ditu, bereziki bizilagunei, beraiek izango dira-eta gehien sufrituko dutenak. Imaginatu lehen pisuan bizi zarela. Ba, ke eta soinu guztia etxean sartuko zaizu. Eta bizilagunak tabernariekin sartuko dira, ez dutelako bestela nora joan kezatera. Ez dira Madrilera joango Zapaterori putakumea deitzera.

### Bizilagunekin arazorik izan al duzue?

Klaudio: Behin edo behin bizilagun bat etorri zaigu bezperako soinuagatik kezatera, baina salaketarik ez dugu izan. Egia esan, bizilagunak primeran portatu dira gurekin.

Bezero kopuruaren beherakadaz hitz egitean, arazoa orokorra dela berretsi dute, “ez Ihintzarena bakarrik”. “Aisialdiko kulturaren aldaketa handia egon da. Jendeak nahiago

Luis Beltza – Beltza Recordseko jabea eta disc-jockeya

## “Ihintza ixten da munduak hartu duen bidea penagarria delako”

Donostiako Alde Zaharrean duen dendan diskoren bat erosi dugunok ondo dakigu zer nolako izaera duen Luisek. Ahoberoa askotan eta umore handiko pertsona, inork ez du zalantzarik musika maite duela. Nahikoa da denda bera ikustea hortaz ohartzeko: milaka diskok betetzen dituzte hormak; gehientsuenak binilozkoak, baina baita CDak ere. Aspaldi joan gabe, galdera gutxi batzuk egiteko sartu nintzen dendan. Harrituta geratu nintzen; zur eta lur. “Zer musika da... hau? Camilo Sesto?”, galdetu nion disko jogailua behatzarekin seinaltatuz. “Bai. Garbi daukat nire etorkizuna musika melodikora bideratuko dudala”, erantzun dit eta algara batean hasten da. “Hor duzu titularra!”.

**Urriaren 15ean musika jartzen izango zara Ihintzan. Erabaki al duzu zer musika jarriko duzun? Espero Camilo Sesto ez izatea...**

Ez, ez. Saldarekin hitz egin dut eta garbi dago soul eta funk musika jarriko ditudala. Nire espezialitatea da, musika beltza. Beste hau [Camilo Sestogatik] zaletasuna da.

**Orain denbora bat ere egon zinen Ihintzan. Zer sentazio eraman zenuen?**

Oso ona. Ederra izan zen. Tratu oso ona jaso nuen, bai pertsonalki, baita nire musika saioagatik. Milioi bat tokira joan naiz

musika jartzera eta %98an Coca Colako ordezkariari ematen zaion tratua eman didate. Eta ni ez naiz inongo ordezkaria; nik musika egiten dut, artea. Hori Ihintzan errespetatu egin dute.

**Argazkien erakusketa bat ere muntatu zenuen?**

Bai, hala da. Ahaztua nuen, egia esan. Garai hartan fotografian erabat sartuta nengoen, ez orain bezala, eta nire lanak erakutsi nahi nituen. Horregatik muntatu genuen erakusketa hura, eta haren ondorioz soul-funk saioa atera zen. Argazki batzuk saldu nituen eta gainera Saldak Benito Lertxundi, Xabier Lete eta Lourdes Iriondoren single batzuk oparitu zizkidan. Beraz, ezin kontentuago joan nintzen.

**Nola sortu zen zu eta Ihintza tabernaren arteko harremana?**

Saldaren bitartez, dendara etortzen zelako diskoak erostera. Dendara sartu den %80k gorroto nau eta geratzen den beste %20a lagun bihurtu da. Rock’n’rolla hala da: zuria eta beltza dago, eta grisa oharkabe pasatzen da. Salda ez da gorrotatzen nauen %80 horretako parte; bezero bezala hasi eta lagun bezala amaitu duen %20 horretan kokatzen da.

**Taberna itxiko zutela jakin zenuenean, zer sentitu zenuen?**

Oraindik ez dut sinesten. Hori da lehe-



nengo sentazioa. Ez zen gauza berria, denbora zihoan eta gauza bera esaten. Nik gauza bera diot dendari buruz, baina itxi ez eta jarraitzea erabakitzen duzu. Berak justu kontrakoa erabaki du. Horrre hutsa da. Ihintza, Beltza Records edo honelako gauzak ixten dira munduak, gizarteak orokorrean eta kulturak, bereziki, hartu duten bidea penagarria delako. Beste eskaera bat dagoelako ixten dira. Horrre bideratuta gaude.

**Donostian ere antzera gertatzen al da?**

Berdin-berdin. Le Bukowski bezalako leku gutxi batzuk geratzen dira; ezer gutxi gehiago. Dagoeneko ez dago interesik. Jendeari ez zaizkio interesatzen benetan interesgarriak diren gauzak: zaborra interesatzen zaio. Ihintza eta beste leku asko itxtearen arrazoia hori da.



## Shake it up, baby, now!!

Juan Luis Romatet

Ostiral edo larunbat gau batean *Twist and shout* kantaren lehen akordeak entzun eta automatikoa izaten zen: gorputza atzera bota, ahoa zabaldu eta oihuka hasi! Aaaa... aaaaa... aaaaa... AAAAAA!!!! SHAKE IT UP, BABY, NOW!! TWIST AND SHOUT!!! Eta zer esan James Brownen marrua entzutean: pa, pa, pa, pa, pa, pa-pa GET UP!! Zer bizkarrezur geratzen zen mugitu gabe erritmo haiek entzunda. Hala ere, Ihintzako momentu kuttunena *Fools gold* entzun nuenekoa izango da. Dantzako erritmoa. Baxu elastikoa. Gitarra psikodelikoa. Segi eta segi aurrera. Minutu bat, bi, hiru, lau... hamar!! Gora, gora, gora. "Stone Rosenen kanta onena da", zioen Saldak. Amen.

Nire heldutasunerako bidaiaren lekuko izan da taberna hau, inoiz heldutasunera iritsi banaiz. Peter Panen sindromea ondo barreiatuta dago munduan, zoritxarrez. Zenbat gau. Zenbat kafe, zerbeza eta gin-tonik. Alkoholak lainotutako zenbat hizketaldi absurdo. Zenbat barre. Baita haserre batzuk ere. Zenbat musika. Bertan izan nuen musika jartzeko lehen aukera (zorionez beste behin bakarrik errepikatu dena), Ostarrena zine klubaren festa batean. Zine forumeko hainbat debate inprobisatu ere eginak gara taberna honetan. "Bergmanek ez dik pitorik balio!". "Hik ze ostia jakingo duk, zinea zer den ere ez dakik-eta!".

Une surrealista batzuk ere bizi izan ditugu. Inork gogoratzen al du ateko egurretan zintzilikatuta gimnasia egiten hasten zen sendagile burusoil speedyko hura? Non bukatu ote du? Erruki haren eskutan erortzen zen gaixoa!

Urteak aurrera joan ahala gero eta gutxiago joaten nintzen Ihintzara. Edadean aurrera joatearen eragin zuzena. Eta joaten nintzen gutxi horietan nabari nuen bezero gutxiago izaten zirela barra ondoan edariak eskatzen. Horregatik, Ihintza ixtera zihoala esan zidatenean sorpresarik ez nuen hartu. Baina bai pena handia. Nire izenkide Juan Luis Blancok orri hauetan bertan zera dio: "nire bizitzaren zati bat izan da". Baita nirea ere. Non izango ditugu orain goizaldeko hizketaldi absurdo haiek. Non azken gin tonika edo zerbeza. Eta non jarriko didate berriro *Fools gold* amai-gabea? Segi eta segi aurrera. Minutu bat, bi, hiru, lau... hamar!! Non, Saldak, non?



## KONTZERTUAK ETA DJ SAIOAK

Urriak 14: Kamambu (Brazilian muzik).

Urriak 15: Luis Beltza (Beltza records).

Urriak 21: Bluestock (Rock'n'Roll)

Urriak 22: Ihintza Crew (Esther Sound System, Ivan Llavori eta Mr. Dubbin')

Urriak 28: Malatu.

Urriak 29: The last night – Ihintza classics (Saldak-Mr. Dubbin').





du oporretara edo eskiztera joatea. Tabernetara joatea oso garestia da. Lehen 1.000 pezetarekin mozkor galanta harra-patzen zenuen; orain 6 euroekin zer egiten duzu, ez bazara Eroskira joaten... Taberna batzuek hobeto daramate jaitsiera beste zerbitzu batzuek eskaintzen dituztelako (janariak). Jende gutxiago dabil gauetan, eta egia da tabernak geroago irekitzen dituztela; jende gutxi hori erakarri nahi dute eta eguneko emaitza hobetu. Gaupasa bat egin behar al dugu horretarako? Ez du merezi, zure bizi kalitatea ateratzen da-eta galtzen”, dio Saldak.

Taberna ixteko erabakia ez zen samurra izan. Erabakia atzeratzen joan ziren, baina uda amaieran publiko egin zuten. “Zorrak egiten hasten zarenean pentsatzen hasten zara noiz arte jarraituko duzun horrela. Eta azkenean gaixotu egiten zara. Eta gaixotzekotan, hobe beste era batera gaixotu”, dio Klaudiok irribarretsu.

Itxiko zutela jakin eta berehala jaso zituzten erreakzioak, bai sare sozialen bitartez, baita kalean ere. “Harrituta geratu ziren denak. Jende asko etorri zitzaigun esanaz herriko taberna onena zela eta musika onena jartzen genuela. Tabernan inoiz sartu ez den jendea ere hurreratu zitzaigun esanaz pena zela, oso taberna polita zelako!”.

Amaiera, baina, ez dute nahi tristeia izatea. “Ezin du hileta



## ◀ AZKEN EGUNAK

Azken aste hauetan hainbat kontzertu eta musika saio izan dira tabernan, Ihintzaren historiari behar bezalako amaiera emateko. Espero zen bezala, urte hauetan guztietan tabernako bezero izan direnek ez dute hutsik egin.

**Izaga Garcia:** “Azken kontzertuak iragartzen zituen mezua jaso nuenean sentitu nuen etapa bat ixten zela eta beste berri bat ireki”.

**Juan Luis Blanco:** “Nire bizitzaren zati bat izan da”.

**July Alberdi:** “Zer gogoratzen dudan? Giro ona. Musika ona. Rock'n'Rolla”.

**Susana Suarez:** “Zumaiako parrandak ez dira berdinak izango!”\*

**Dani Carballo:** “Ihntza forever!”.\*

**Kabi taberna:** “Ez duzue itxiko. Dena broma da, ezta?”.\*

**Micky Hail (Dirty Vynil):** Leku honek beti izango du tokia nire bihotzean. Une on asko izan ditut bertan. Nothing but love!!”.\*

\*Facebook bidez.





**OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.**  
 Jose Mari Kortza Indusgunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
 Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45  
 www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

**Ostolaza**  
 Altzariak

Julio Beobide Ibiltokia, 1  
 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
 mueblesostolaza@euskaltel.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

**OTEZURI**  
 KAFETEGIA

Gosariak  
 Ogia  
 Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



**Alta Mari, 17, behea**  
 tel. 943 247 011

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
 Enpresa eta auzo lanak  
 Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



PINTURAK,  
 ARTE EDERRAK,  
 ALFONBRAK,  
 DROGERIA,  
 PINTATURIKO PAPERA,  
 ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788  
 Erribera 1 behea

**Talajaia**  
 taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



**TALAI-PE**  
 jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
 Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392



Erribera kalea  
 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
 tel. 943 861 973

**TTAKUN TABERNA**



Izustarri, 3  
 tel. 943 865 289

**TXIMISTA**  
 garagardotegia

Ogitartekook  
 Plater konbinatuak  
 Txerri-ukondoak (hodilloak)  
 Saltxitak, oilaskoak...  
 Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905

**TXORTENA**  
**JATETXEA**

Eguneko menua, Asteburukoa,  
 Parrilla, Wifi gunea,  
 Plater konbinatuak,  
 Kazuelitak, Errazioak

Oikiako plaza 24.  
 Tel. 943 865 315  
**OIKIA**



**Loradenda** Lorazaintza  
 erribera, 1 tel. 943 860 778  
 tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

**Urola 2000, s.l.**  
 Aroztegia

\*Erakuntzen akabera eta dekorazioa  
 \*Baserrien zaharberritzea  
 \*Enbarkazio konponketa  
 \*Ate, zokalo, tarima eta persianak  
 \*Armairu enpokatuen aurrealdea  
 \*Aroztegi metalikoak

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



Gosariak-Pintxoak-Kaxuelitak-Eguneko menua-Asteburuko menua-Merendak-Plater konbinatuak-Errazioak-Afariak

Eusebio Gurnutzaga plaza, 10 Tel. 943 865 349



**Xanti Osa**  
 Arantxa Azkue

Amalako plaza, 13  
 tel. 943 860 914  
 657 794 153  
 Denda: tel./faxa 943 862 385

**Zalla**



• plater konbinatuak  
 • ogitartekoak  
 • oilasko erreak

Urtia Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA



Maitate Ukanaga

Oinetako eta erropa konponketak

Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumaia • 943 861 252 • 652 727 740



bat izan. Inola ere ez. Nahi duguna da taberna hau bizi izan duen jendeak oroitzapen positiboa izatea. Edan egin da, dantzaz egin da, negar egin da... Denetik egin da hemen”.

Urte hauetan guztietan lantoki izan duten taberna itxita, ibilbide berria zabalduko zaio bikoteari. Saldak disc-jockey munduan “pixka bat mugitu” nahi du; Klaudiok, berriz, Zumaiak utzi eta kanpora joateko gogoak du, “Asturiasera-edo”.

Galdera zerrenda begiratu eta elkarrizketa amaitzeko proposa dirudien bat aurkitu dut.

### **Zein da Ihintzak uzten duen ondarea?**

Salda: Ondarea baino oroitzapenak uzten dituela uste dut. Ezin da kontatu hemendik pasa den jendea. Batzuek asko eman dute; beste batzuek gutxiago. Gero gu biok gaude. Beti esan izan dut Ihintzak bi zati dituela: bat plastikoa, arte eta diseinuarena, Klaudiok irudikatu duena; eta bestea musika eta dantzarena; hortaz ni arduratu naiz. Guk biok eman duguna uste dut dela Ihintzaren ondarea. ■

## **Ihintzaren soinu banda**

...30 abestitan

- Nacha Pop:** La chica de ayer.
- Lou Reed:** Romeo had Juliette.
- Khaled:** Aicha.
- The Fugees:** Killing me softly with his song.
- The Rolling Stones:** It's only rock'n roll (but I like it).
- John Lee Hooker w/ Santana:** The healer.
- Nina Simone:** My baby just cares for me.
- Peter Gabriel:** In your eyes.
- Buena Vista Social Club:** El cuarto de Tula.
- Rubén Blades:** Pedro Navaja.
- US3:** Cantaloop (Flip fantasia).
- Joss Stone:** Super duper love.
- Parafunk:** Mündo cool.
- Amy Winehouse:** What is it about men.
- Propellerheads feat. Shirley Bassey:** History repeating.
- Brenda Fassie:** Vuli Ndlela.
- Femi Kuti:** Sorry sorry (old skool afro dub - François K).
- Bob Marley (with Lauryn Hill):** Turn your lights down low.
- Quannum (feat. Lyrics born and the poets of rhythm):** I changed my mind (Rattlesnake mix).
- Massive Attack:** Unfinished sympathy (perfecto mix by Paul Oakenfold).
- Tanya Stephen:** It's a pity (Ihintza mix).
- Thievery Corporation:** The richest man in Babylon.
- Ledisi:** Feeling orange but sometimes blue.
- Gnarls Barkley:** Crazy.
- Arima Beltza:** Whole lotta love.
- Linton Kwesi Johnson:** Tings an' times.
- Malatu:** Maitatua sobera.
- Roberto Sanchez:** A-lone ark rock steady riddim.
- Basque Dub Foundation:** Don't forget.
- The Stone Roses:** Fools gold.



# ZUMAIA

etxebizitzak salgai  
Odieta - San Jose

- 2 eta 3 logela,
- sukaldea jarrita
- trastelekuak eta garajeak



Zumaia Udala

informazio gehiago  
[www.zumaia.net](http://www.zumaia.net)  
943 14 34 15

232.000 eurotik hasita  
etxebizitza berriak



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

# URRIA-AZAROA

## ERAKUSKETAK

### Erakusketak Alondegian

Irailaren 23tik urriaren 16ra : MLDJ-2011 Egitasmoa: Manu Uranga, Lorea Alfaro, David Martínez Suárez eta Jon Otamendi.

### Urriak 22/23 BALEIKEKO

BIGARREN ESKUKO LIBURU ETA DISKO AZOKA.

### Urriaren 26tik azarozaren 13ra

BILADI HADI elkartasun brigada kulturalaren argazki erakusketa.

### Azaroaren 16tik aurrera

DARAHLI Elkartearen erakusketa.

## IKASTAROAK

Foronda kultur etxean, urriaren 3an hasita: KZ Gunea, pintura, plastika, yoga, eskultura, Tai Chi,...

Informazioa eta izen-ematea :

943-861056 – [kulturetxea@zumaiaokoudala.net](mailto:kulturetxea@zumaiaokoudala.net) - Alondegia kultur etxea (irailaren 19tik aurrera).

## URRIA

### Larunbata, 15

20:00etan Kofradian, Diskofesta.

### Igandea, 16

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: GLU GLU taldearen "Arratoitxo pinpirina".

### Asteazkena, 19

17:30ean Ipuin kontaketa KONTUKANTOI taldearen eskutik.

### Osteguna, 27

21:45ean Aita Marin zine forum:"El árbol".

### Ostirala, 28

19:30ean Forondako Ganbaran GUNEK antolatuta Solasaldia: Julian Bereziartua, medikua.

22:00etan, Aita Marin, antzerkia: ARAN-ARAN taldearen "De cómo moría y resucitaba Lazaro, El Lazarillo".

### 28tik 30era

ASTEBURU MIKOLOGIKOAK.

## AZAROA

### Asteartea, 1

19:00etan Parrokian Tolosako Abesbatza topaketen baitako kontzertua: Letoniako Youth Choir "BALSIS" abesbatza.

### Osteguna, 3

18:00etan Brankan, "Cómo convivir y vencer la soledad: Teléfono de la Esperanza de Gipuzkoa" - LORENA PIDAL. Gipuzkoako Itxaropen Telefonoa zerbitzuko Zuzendaria.

### Osteguna, 10

17:30ean Ipuin kontaketa APIKA taldearen eskutik.

19:00etan Algorri Interpretazio zentroan, ZIIZ Elkarteak antolatuta, "Zumaiaoko Itsas-motorrak eta makinak".

### Ostirala, 11

19:30ean Forondako ganbaran, GUNEK antolatuta Otoitz-meditazio saioa: Yoga.

### Igandea, 13

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: LOGELA MULTIMEDIA taldearen "Anaki"

**Udazkeneko antzerkia Zumaian**

- MUNSTROA** (haur-bata) - Urriak 7 ostirala 22:00
- ARRATOITXO PINPIRINA** (haur-bata) - Urriak 16 igandea 12:00
- "DE CÓMO MORÍA Y RESUCITABA LAZARO, EL LAZARILLO"** (haur-bata) - Urriak 28 ostirala 22:00
- LOGELA MULTIMEDIA** (haur-bata) - Azaroak 13 igandea 12:00
- BIDE GALDUAK** (haur-bata) - Azaroak 19 ostirala 22:00
- GABON KONTUAK** (haur-bata) - Abenduak 18 igandea 12:00
- LA LECHUGA** (haur-bata) - Abenduak 16 ostirala 22:00
- GAITZAGORRIAK** (haur-bata) - Abenduak 28 ostirala 18:00

### 16tik 20ra

ZUMAIAKO X. KLARINETE MARATOIOA: Kontzertuak, ikastaroak...

### 19tik 22ra

XIXILI EGUNA DELA ETA: Musika Patronatuko kideen esku Kontzertu egitaraua.

### Ostirala, 18

22:00etan Aita Marin, antzerkia: DEJABU taldearen

"Gure bide galduak"

### Larunbata, 19

20:30ean Parrokian Donostiako IBAETA eta herriko BEHEKO PLAZA abesbatzen kontzertua.

### Ostirala, 25

19:30ean Forondako ganbaran, GUNEK antolatutako Solasaldia aurtengo gaiarekin jarraituz: Izaskun Andonegi, "Zaintza palatiabok eta dolua".

**Zumaia Hotela**  
Jaletxea Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

**Zerbitzu Ofiziala**  
**ZUMAIA MOTOR**

Santiago auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

**TXILLARRE EKO DENDA**

Zuzenean ekologikoa etxera

Zumaian banaketak, asteazken arratsaldetan  
635 008 496 • 943 742 085  
[p.ekologikoak@euskalnet.net](mailto:p.ekologikoak@euskalnet.net) • [www.txillarre.es](http://www.txillarre.es)

**ZUMAIA AUTO-ESKOLA**

- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

**Zumaia optika**

Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

**TXALAPARTA OPARIAK**

Angelu Sorana, 2  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 143 089  
faxa. 943 430 657



## USAINAK

**U**sainak ditut maite.

Usain mota guztiak: gozoak, lerdanak, leunak eta eztiak. Gardenak, zein nazkagarriak. Guztiak ditut maite.

Nonbaitera iritsi orduko sudurreko leihatilak ongi zabaldu eta bertako usain guztiak arnasteko ahalegina egiten dut. Batzuk ezagun egiten zaizkit, eta oroitzapenak sortarazten dizkirate berehala. Besteak, berriak dira niretzat, eta azkar barneratzen ditut, badakidalako usain horiei ezker etorkizunean berriz biziko dudala une hori.

Usainak ditut maite, haiek osatzen dutelako nire memoria. Iraganera eramaten naute, lurrinez osatutako etengabeko bidaictan, eta haiei ezker behin eta berriz ekartzen ditut gogora bizitako esperientzia guztiak.

Usainak zenbat maite ditudan jakinik, perfumerik garestiena oparitu zidan lagun batek behin. Haserre, oparia itzuli nion: ez ditut parfumeak gogoko.

Usainak estaltzen dituzte.



# BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza • Tel. 943861700

- Eguneko menua
- Karta
- Pizakak
- Taldeentzako menu bereziak

# Casa BASUSTA



CASA  
BASUSTA  
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,  
Lore-zentruak, Koroak,  
Landare naturalak eta artifizialak,  
Zeramika-lanak eta zunezko saskiak

**Etxez etxeko zerbitzua**

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611





# zumartian

## www.zumartian.com

ezagutu Zumaiako eskaintzak

## Eskolara itzultzea

Ordaindu 3 hilabetetan interesik gabe

Irailaren 1etik urriaren 31era

**2.000 €**  
bale saritan

Zumaia txartela erabiltzeagatik!

Saria datafototik aterako da. Dataloroko tiketarekin ordaindu elkarteko dordotan, erosketa berriarerkin bere prezioa sariaren kantitate berdinan edo handiagoa izanik. Balearen iraungitze-data: 2011-11-30.

